

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren kultura egitaraua datorren asterako

Nafarroako Gobernuak proposamen berriak prestatu ditu datorren asterako: kontzertuak, zinema, tailerrak, antzerkia, erakusketak eta bisitak

Astelehena, 2018.eko azaroak 19

948 Merkatuaren bigarren edizioa iritsi da eta kultura uholdeak zeharkatuko du Iruñea [aste honetan](#): Fimotekan proiektzioak; dantza, antzerkia eta zirkua han eta hemen; ikus-entzunezko zein arte plastikoen eskaintza zabala; 35 kontzertu, etab.

Era berean, aurrera doa Sakanako liburutegiek prestatu duten egitaraua bailarako paisai eta baso ondarea goraipatzeko. Aste honetan haurrentzako tailerrak antolatuta dituzte eta dokumental bat izango da ikusgai inguruko animalia eta landareak aurkezteko.

Astero legez, hitzaldiak izango dira Nafarroako Liburutegian: astelehenean, "Orain pentsatu, mundua pentsatu" zikloaren barruan, José Luis Villacañasek "Oraindik ere, Freuden inguruko irakurketa filosofikoa" eskainiko du. Astearte goizean César Orozek bere liburu berria aurkeztuko du, "Lo que diga Shakespeare: Navarreando por la literatura universal". Arratsaldean, berriz, Ernesto Maruriren txanda izango da "Familia harremanak: memoriak, egunerokoak, eskutitzak" mintzaldiarekin. Bukatzeko, asteazkenean bezala, haurrentzako tailerra izango da liburutegian, "Bienvenidos a los cuentos".

Halaber, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian, "Zientzien hotsak" zikloa aurrera doa. Asteazkenean, Julián Ávilak, "Teknologia eta musika: Teknologia arte modu berri bat al da?" hitzaldia helaraziko du.

Musikari dagokionez, eskaintza bikoitza dugu Baluartean. Ostegun eta ostiralean Nafarroako Orkestra Sinfonikoak bi kontzertu eskainiko ditu Juanjo Menaren zuzendaritzapean. Igandean, Ahots Berdinen Emakumezkoen Abesbatzaren txanda izango da bere "Wolcum yule" emanaldiarekin. Ez dira Baluarteko aukera bakarrak, igandean antzerki eta musika nahasten dituen "El hombre cigüeña" ikuskizuna aurkeztuko baita.

Huarte Zentroari dagokionez, ikusgai mantentzen dira "Sol y



Merkatua 948 ihazko edizioko ikuskizun bateko irudia.

Sombra” proposamena eta “Work in Process” erakusketa. Eskaintzaren barruan lantegi berri bat gehitu behar da astelehenean: “Introducción Técnica Labs”.

Erakusketen alorrean, Karlismoaren Museoak erakuspen berri bat prestatu du karlismoak zineman izan dituen agerpenak biltzeko, “Karlismoa zineman”. Era berean, honako erakusketa hauek zabalik dira: “Macla, mamua, bismuto, vicario” Oteiza Museoan; “Dora Salazar. Inspiración. Espiración. Expiación” Nafarroako Museoko Kaperan; eta “Izaba NANen” zein “Baxenabarre, lurralde berezia” Nafarroako Errege Artxibo Nagusian. Azken erakusketa honen harira, mintzaldi bat prestatu da ostegunean Peio Monteano historiagilearen eskutik: “Sola, Armendáriz, Osés. La herencia bajonavarra en los apellidos”.

Are gehiago, zinemarekin hitzordua Nafarroako Filtotekean da: asteartean “El puente sobre el río Kwai” eskainiko da eta ostiralean “Vaya” filma izanen da ikusgai.

Bukatzeko, bisita berriak antolatu dira Iruñeko katedraleko klaustroan egiten ari diren konpontze lanak bisitatzeko (igandean).